

HITZ BITAN

KOMUNIKABIDEAK. Hasieran hilabetekaria izango da, gero hamaboskaria

Atzo aurkeztu zuten 'Txaparro' Zarauzko euskarazko herri aldizkariaren lehen alea

Iker Aranburu | DONOSTIA

Atzo iluntzean eta gaur goizean hasi dira banatzen Zarauzko etxe guztietan *Txaparro* herri aldizkari berria. Izen bereko kultur elkarteak Zarauzko Udaren laguntzarekin euskara hutsez ateratako proiektuak herri informazioaren hutsunea betetzera dator Gipuzkoako herri horretan.

Orain arte bertsolari gisa eza-gututako Nahikari Gabilondo izango da *Txaparro*-ko zuzendaria. Bost lagun arituko dira egunero aldizkarian lanean —bi kazetari, maketatzailer bat, publizista bat eta Gabilondo arduraduna ber—, baina orotara lan taldea 12-14 lagunek osatuko dute; argazkilariak, banatzaileak eta aldian aldiko kolaboratzaileak, besteak beste.

Gabilondoren arabera, urtea

amaitu bitartean *Txaparro* hila-betekaria izango da, baina urte berriarekin batera, lan taldeak erritmoa hartu ondoren, bi aste-tik behin ateratzeko asmoa dute.

Iraileko, urriko, azaroko eta abenduko aleak Zarauzko 10.000 etxeetan banatuko dituzte, Udalak hala eskatuta. Nolanahi ere, Gabilondok adierazi du helburua 5.000 aleko banaketa ziurtatzea da. «Hasiera batean euskaraz ez dakitenek ere jasoko dute aldizkaria, baina gero interesa agertzen dutenengana soilik helduko gara», azaldu du.

Izena aukeratzeko orduan, Zarautzen soilik erabiltzen den hitz bat aukeratu dute, *Txaparro* alegia. Bainujantzi esan nahi du.

Herri aldizkaria izanik, Zarautzen gertatzen diren albiste-

ak zabal-zabal eta gertuko ikuspuntu batetik ematea izango du helburu *Txaparro*-k. Herri-tarrei ere ahotsa eman nahi zaie, Zarauzko kontuez edo beste edonon gertatutakoez ere beren iritzia eman dezaten gutunen bidez. Ale bakoitzean intereseko galdera bat egingo zaie herritarrei.

Zarautz idazle askoren sorburua izanik, haiek ere beren lekua izango dute. Lehen alean Anjel Lertxundiri egin diote txokoa, eta hurrengoa Andoni Egañari dagokio.

Herri aldizkaria izanik, zorion agurren tarte ere izango da, osasunari eta elikadurari buruzko aholkuekin batera. Itxuraldatutako argazki bat ere izango da hilabetero, eta aldatutakoa zer den asmatzen dutenen artean zozketa egingo dute.



JAVIER ETXEZARRETA-EFE

Ertzaintzak atzemandako droga.

DROGA

Gipuzkoa eta Cadiz arteko haxix trafiko sarea, desegina

Ertzaintzak Gipuzkoa eta Kadizko La Linea de la Concepcion herriaren artean ziharduen haxix trafiko sare bat desegin du, eta bost lagun

atxilotu ditu, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko iturriek atzo jakinarazi zuenez. Atxilotuei, guztira, 75 kilo haxix atzeman zizkieten.



MIREN SAEZ

LEGEZ KONTRAKO ADOPZIOAK

Haurren trafiko sarea desegiteko Gobernuen arteko koordinazioa nabarmendu dute Boliviako diputatuak

Adingabeekin trafikatzan zuten sarea desegiteko Boliviako Gobernua eta Eusko Jaurlaritzaren artean izan den koordinazioa «garrantzitsua» izan dela adierazi zuten atzo Elisa Zúñiga de Silesek, Boliviako Diputatuen Ganberako Gizarte Politika Batzordeko lehendakariak. Sarearekin zerikusia zuten 22 lagun atxilotu dituzte Bolivian, eta Bizkaian zazpi lagun atxilotu eta beste sei inputatu dituzte. Oraingoz, kaltetutako haurrak zortzi izan dira eta Bizkaiko Diputazioaren esku daude. Edonola ere, ikerketak zabalik segitzen du eta ez dute baztertzeko kasu berriak aurkitzea.

EUSKARA

Sabin Gaztañaga zena omenduko bihar AEK-k Sondikan, haren heriotzaren 10. urteurrenean

Txorierriko AEK-k Sabin Gaztañaga koordinakundeko Bizkaiko arduradun izandakoa omenduko du gaur Sondikan, haren heriotzaren 10. urteurrena dela eta. Sondikako hilerrian hasiko da omenaldia, 13:00etan. Dantza eta lore eskaintzaren ostean, luntxa izango da San Juan landan. Sabin Gaztañaga 1954an jaio zen Erandioko Goierrri auzoan, eta 1991ko irailean hil zen. Euskararen aldeko lanari eman zizkion bere bizitzako urte luzeak.

HEZKUNTZA

EAK osoko zuzenketa aurkeztu dio Madrilgo Unibertsitate Lege aurreproiektuari

EAK osoko zuzenketa aurkeztu zion Madrilgo Gobernuak landu duen Unibertsitate Lege aurreproiektuari, atzo. Alderdi horren arabera, PPren gobernuak proposatzen duen erreformak autonomia erkidegoen autonomia politikoa «murriztu eta oztopatu egiten» du. Era berean, lege aurreproiektu horrek «unibertsitate autonomia» errespetatzen ez duela uste du EAK, besteak beste, «Unibertsitate bakoitzaren berezitasunak aintzat hartzen ez dituelako».

LANKIDETZA

Osasun eta hezkuntza arloko materialez betetako kamioia abiatu da Bilbotik Balkanetara

Neska-mutiko itsuentzako jaso-tako material pedagogiko eta sanitarioz betetako kamioi bat abiatu zen atzo Bilbotik Balkanetara. Gurutze Gorriaren ekime-nez jaso da materiala Espainiako eta Euskal Herriko zenbait hiritan. Hain zuzen ere, Serbia, Kosovo, Mazedonia eta Albaniara eramango du materiala kamioiak. Materialen artean, arkatzak, bolaluma, borragomak, koadernoak eta bestelako oinarritzko gauza batzuk eraman dituzte. Materiala Euskal Herriko eta Espainiako 89 ikastetxetan bildu dute.



CRISTINA BERIAIN

INGURUMENA

Itozko urtegiaren arriskuaz ohartarazten duten txostenak ezkutatzea leporatu diote Matasi

Itozko urtegi nagusiaren «ezkerreko hegalean lur-jausiak izango direla baieztatzen» dute Madrilgo Ingurumen Ministerioak landutako hainbat txostenek. Itozko Koordinakundeak atzo salatu zuenez, Jaime Matas Ingurumen ministroak «maltzurkeriaz ezkutatu» zituen txosten horiek Senatuan izan zuten agerraldian. Hori dela eta, Koordinakundeak auzitan jarri zituen Matasek astean Senatuan emandako «segurtasun tekniko eta juridikoaren» bermeak. Hiru urtetan urtegia beteko dutela esan zuten Matasek.

INGURUMENA

38.882 bisita jaso ditu Urbasa-Andia parkeak iragan berri diren uztailan eta abuztuan

38.882 bisitari hurbildu dira uztail-abuztuetan Urbasa-Andia natur parkera, Nafarroako Gobernuak Ingurumen Sailak emandako datuen arabera. Halaber, iragarri du irailera eta urrira zabalduko dituztela harrera zentroko ordutegiak, izandako harrera ona dela kausa. Bisita gehienak parke naturalera izan ziren: 22.489 abuztuan eta 11.391 uztailan. Urederraren jaiotekua 5.002 lagunek bisitatu zituzten. Bisitari gehienek ingurunearen garbitasuna eta edertasuna azpimarratu dute.